

## Gai cum laude Larraitz Ariznabarreta doktoeari

2013/07/15

**Jose Luis Abellan** Complutense Unibertsitateko irakaslea izan zen epaimahaiko burua. Gainerako epaimahaikideak: **Paulo Iztueta** (EHU), **Lourdes Otaegi** (EHU), **Mercedes Acillona** (Deustuko Unibertsitatea) eta **Maria Jesus Pando** (Deustuko Unibertsitatea). Tesiaren aurkezpena eta galde-erantzunak bukatuta, epaimahaiak aho batez erabaki zuen *Gai cum laude* ematea doktoere berriari.

Tesiaren xedea da Martin Ugalde idazle erbesteratuaren diskurtsoa (kazetaritzari eta literaturari lotutako obrak, elkarrizketak, e.a) aztertu eta analisi sistemiko bat proposatzea. Analisi horretan kazetariaren ideologia eta pentsamendua aztertzen dira.

